

Nafar hegoaldeko uzta **euskarari puzka**

egiten duguna gara

URRIAK 24 - AZAROAK 12



errigora.eus



SASKI BELTZA

betikoa

ORBURUAK · PIKILLO MARMELADA · PIKILLO PIPERRAK · ZAINZURI ZURIAK · TEILAK · TOMATE FRIJITUA · MERTXIKA ALMIARRETAN · OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA · KARDUA · MAHATS-ZUKUA · BOTILA ARDOA · POTXAK · PIPER-MAMIA



SASKI BERDEA

ekologikoa

TXITXIRIOAK · ARDO-OZPINA · OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA · BARAZKI-MENESTRA · PASTA · ORBURUAK · PIKILLO PIPERRAK · ARROZA · ZAINZURI ZURIAK · BOTILA ARDOA · UDARE-ZUKUA



SASKI ZURIA

berezia

ORBURUAK · PIKILLO PIPERRAK · ZAINZURI ZURIAK · BOTILA KRIANTZA · TXOKOLATEZKO ZIGARRETAK · PATXARAN-PASTAK · PATXARANA · OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA · ARDO ZURI APARTSUA · ARBENDOL-POLBOROIAK

+ **Korrikaren katilua**



50+5= **55€**

+ **Seaskaren egutegia**



60+5= **65€**

+ **D ereduaren haziak**



70+5= **75€**

Nafar hegoaldeko uzta **euskarari puzka** **egiten duguna gara**

Hemen da, beste urte batez, Errigoraren *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* kanpaina, urteroko tankeran, baina berritasunez beteta. Iaz bezala, Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko produktuez osatutako hiru saski eskainiko dira urriaren 24tik azaroaren 12ra eta, auzolanari esker, jasotakoaren %25 bertako euskalgintzara bideratuko da. *Egiten duguna gara* lelo hartuta, Agerraldia egitasmoaren lehenbiziko ekintza-agen-darekin dator 2020ko kanpaina, bigarrena osatzeko ekarpenaren bila.

19. Korrikaren mezuan Lorea Agirrek zioen bezala, “auzia ez da izan ala ez izan. Nolako edo halako izan. Kontua ez da hori. Kontua ekitea da. Egitea. Egiten duguna gara”. Errigoraren oinarrian dago ekiteko asmo hori. Abiapuntutik, gure ekintzen jabe egiteko bide bat eskaini nahi izan dugu. Auzi guztietan, hala euskararenean nola elikadura-burujabetzarenean, komunitatearen osaketan edo herrigintzaren jardunean, izan beharko lukeena egiten saiatu gara. Nafarroa hegoalde eta erdialdearentzat txanda eskatu beharrean, periferia erdigunean jarri dugu. Euskararentzako nahi genukeena eskatuzetik harago, nahi duguna ekartzeko siakera egin dugu. Elikadura-burujabetzarako bide definitiboa marraztu ordez, geure bidezidorrak zabaldu ditugu. Arduraren aurrean eskuak garbitu beharrean, auzolanean zikindu ditugu.

«Egiten duguna gara» dei bat da. Euskal jendarteari egiten diogun gogorarazpena. Ekintza txiki batekin kanpaina honetan parte hartzeko gonbidapena, helburu handien bila. Saskiak eskatuta, hauen balioaren %25arekin behar-beharrezko ekarpena egiteko zonaldeko euskalgintzari: Tuterako, Lodosako eta Vianako ikastolei; Erriberako AEK-ri; Sortzenek hezkuntza publikoan D ereduko lerroak zabaldu eta mantentzeko egiten duen lanari eta Agerraldia egitasmo berriari.

«Egiten duguna gara» asmo-adierazpena da. Azken urteetan ekarpenetik partida bat gorde izan dugu mugimendu berri bat martxan jartzeko, eta heldu da uzta. Agerraldia deitu den egitasmo berri honen jarduteko moduaren sintesia da «egiten duguna gara», euskararen ezagutza bultzatzeko, erabilera sustatzeko eta euskararekiko jarrera baikorrak birsortzeko ekintza praktikoz osatutako urteroko agenda izango baitu lanabes nagusi.

«Egiten duguna gara» jarrera bat da. Aldatu nahi ditugun egoeren aurrean ardurara hartzekoa. Egoera tamalgarrietan elkartasun-planteamendu bereziak egiteko determinazioa izatekoa. Pandemiak eragindako nahas-mahasa dela eta, ikastolen jaialdiak eta Sortzenen jaiak ezin izan dira egin eta Korrikarik ez dugu izango datorren udaberrian. Beraz, elkartasun-planteamendu gehigarri bat egin dugu: saski beltza eskatzekotan, 5€ gehigo ordainduko dira, trukean Korrikaren katilua jasotzeko eta AEKri diru hori zuzenean bideratzeko, Korrika ez egiteak eragingo dion diru-galera arintzen laguntzeko; saski berdea eskatzekotan, 5€ gehigo ordainduko dira, trukean Seaskaren egutegia jasotzeko eta Seaskari diru hori zuzenean bideratzeko, Herri Urrats ez egiteak eragin dion diru-galera arintzen laguntzeko; saski zu-

ria eskatzekotan, 5€ gehigo ordainduko dira, trukean D ereduaren haziak jasotzeko eta Sortzeni diru hori zuzenean bideratzeko, urteroko jaia ez egiteak eragin dion diru-galera arintzen laguntzeko.

«Egiten duguna gara» baieztapena da. Aspaldiko urteetan askotariko jatorri eta grinak ditugunen artean egiten ari garen komunitatearen egiaztapena. Ekoizle, euskaltzale, kontsumitzaile arduratsu eta herrigintzako kideak batzen gaituzten zubien oinarria. 2013an kanpaina abiatu zenetik ia 1.200.000€ko ekarpena egin diogu guztion artean zonaldeko euskalgintzari, baina hori baino askoz gehiago lortu du Errigoraren komunitateak, hala nola auzolana balioan jartzea; zonaldeko 25 kontserba-etxek, olio-errotak, pastagilek, gozogilek eta lekale-ekoizlek bat egin eta ekoizpenaren eta euskararen alorrean urratsak ematea edo euskal herritarren artean, ekoizle eta kontsumitzaileen artean eta pertsona eta kontzeptu ustez apartekoen artean (esaterako, euskararen eta elikadura-burujabetzaren artean) zubiak eraikitzea.

Agerraldia

Zertara dator?

Nafarroa hegoaldean eta erdialdean euskarari hauspo berria ematera dator, zonaldeko euskaltzaleen indarrak metatzera, ilusio berriak piztera eta orain arteko lanari bultzada ematera.

Zer da?

Nafarroa hegoalde eta erdialdean kokatzen da Agerraldia, erromatarrek *Ager vasconum* deiturikoan (hortik izena), Garestik Kortesera eta Zangozatik Vianara, eremu periferiko hau erdigunera ekartzeko bokazioz.

Bide praktikoa egin nahi du Agerraldiak, euskarari hauspo berria emateko ezagutza bultzatuz, erabilera sustatuz eta euskararekiko jarrera baikorrak birsortuz.

Agerreko euskaltzaleak dira Agerraldiaren protagonistak: euskararen alde ari direnak saretu eta indarrak batzea du xede.

Errigoraren eskutik etorri da plazara, baina izate eta forma propioa du Agerraldiak, bertatik bertarako mugimenduarena.

Nola gauzatuko da?

Aurretik aipatutako asmo guzti hauek batuko ditu Agerraldiaren urteroko agendak. Urritik urrira Agerraldiak babesten, sustatzen edo antolatzen dituen ekimen eta ekitaldi puntual zein iraunkorrak jasoko ditu. Aisialdian, eskaintza kulturaletan, kirol jardueretan, lan munduan, erakundeen esparruan edo hezkuntzan euskarak dagokion lekua irabaztea da asmoa.

Ekintza guztiak Agerrerako izango dira, baina gainontzeko Euskal Herriari ere egin nahi diogu lekua. Mugimendua bera babesteko, baliabideak biderkatzeko eta eskaintza zehatzak antolatzeko, esate baterako, Etxarriko gazteek, Garaziko dantzariak, Bilboko erakundeek, Orioko arraunlariek, Iruñeko unibertsitariak edo nazio mailako eragile eta erakunde askotarikoek ezinbesteko parte-hartzea izango dute.

2 0 2 0 - 2 0 2 1

agenda

Agerreko euskaltzaleen bultzadaz eta Euskal Herriko askotariko eragileekin elkarlanean, urritik urrira Agerraldiak babestu, sustatu edo antolatuko dituen ekintzak jaso ditugu Agerraldiaren agendan, 5 eremutan antolatuta.

EUSK ALDU NTZEA

ABIZENDU KANPAINA

Abizenak euskarazko grafiaz jartzeko kanpaina.

AGER ZONALDEA **2021 API.**

Agerraldia **antolatzaile**

MINTZALAGUNA

Euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak ohiturarik ez dutenekin elkartzeko egitasmoa.

AGER ZONALDEA

Euskaltzaleen Topagunea
Agerraldia **sustatzaile**

EUSKARA PLANA: ITURRI KONTSERBAK

Kontserba etxean errotulazioa, arreta zerbiztua, administrazioa... euskaldunduko da.

ARROITZ

Emun
Agerraldia **sustatzaile**

HIZKUNTZA-PAISIA EUSKALDUNTZEA

Kale-izenen plakak, norabidezko seinaletikak, errotulazioak... euskaldunduko dira.

SARTAGUDA **2020 ABE.**

Nafarroa Aurrera elkarte
Agerraldia **babesle**

KIR OLA

LASTERKETA BARDEETAN

Lurra, kirola eta hizkuntza lotzeko, trail lasterketa egingo da Bardeetan.

ARGUEDAS **2021 URR.**

Agerraldia **antolatzaile**

ESKU PILOTA HAURRENTZAT

Juan Martinez de Irujo, Eulate, Goñi III eta Euguirekin pilota saioak txikientzat, euskara eta pilota lotuz.

ZANGOZA **2021 MAI.**

Elkar Pelota
Agerraldia **sustatzaile**

FUTBOL TALDEA TUTERAN

Euskara eta euskal kulturaren sustapena, parekidetasuna, askatasun sexuala eta arraza, kultura zein klase ezberdinen integrazioa helburu dituen Union Tuterako futbol taldea sortuko da.

TUTERA

Union Tuterako
Agerraldia **babesle**

JEND ARTEA

'GORPUTZ GRAFIAK' ERAKUSKETA

"Gorputz_grafiak. Memoria feministaren marzuak" erakusketaren inguruan tertuliak eta lekuan leku premiazko ikusten diren tailerrak antolatuko dira.

AGER ZONALDEA

Emagin, Ilunberri eta Tuterako
talde feministak
Agerraldia **sustatzaile**

BIZIPOZA: AURKEZPENAK

Euskaraz eta sorkuntzatik, hainbat zailtasun bizi dituzten familiekin eta elkarteekin batera poza partekatzea helburu duen Bizipoza egitasmoaren aurkezpenak.

AGER ZONALDEA

Bizipoza
Agerraldia **babesle**

ASTEBURUA EUSKARAZ

Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko Etxarri eta Tuterako gazteen arteko truketzea.

TUTERA

2021 MAI.

Agerraldia **antolatzaile**

EUSKARA ETA EUSKAL-GINTZAREN AZTERKETA

Agerreko euskararen eta euskalgintzaren egoeraren inguruko azterketa egingo da.

AGER ZONALDEA

2021 MAI.

Euskal Herriko Unibertsitatea
Agerraldia **sustatzaile**

ELKAR-EZAGUTZA BIDAIAK

Euskara eta ekoizpena hurbiltzeko upategi, olio-erota eta kontserba-etxeetara txangoak egingo dira.

AGER ZONALDEA

Agerraldia **antolatzaile**

KULTURA

BERTSO ESKOLAK

Haur eta gazteak bertsoaritzara hurbiltzeko bertso eskola sortuko da Tuteran eta Tafallako ikastolan bertsoaritzara gerturatzeko eskolak emango dira.

TUTERA | TAFALLA

Nafarroako Bertsozale Elkarteak

Tafallako Ikastola
Agerraldia **sustatzaile**

GURE ZIRKUA

Lehenbiziko euskal zirku ibiltaria Lizarrara etorriko da zirkuaren mundu magikoaz goza dezagun.

LIZARRA

2021 IRA.

Gure zirkua
Lizarrako Ikastola
Agerraldia **sustatzaile**

ERRELATO TXAPELKETA

Euskara sustatzeko literatur lehiaketa.

MIRANDA ARGA

2021 API.

Euskararen Lagunak
Agerraldia **babesle**

EUSKARA EGUNAK

Hainbat herritan euskara egunak babestu eta sustatuko ditugu. Kontzertuak, dantzak, animazioa... jai-giroan euskarak kalea har dezan.

ANDOSILLA

2021 EKA. 12

ERRIBERRI

2021 EKA. 12

BERBINTZANA

2021 EKA. 19

Andosillako gazteak
Berbintzana Taldea
Dindaia
Agerraldia **sustatzaile**

LARRAGA

2021 MAI. 22

MIRANDA ARGA

2021 MAI. 29

Larragako Gazte Asanblada
Euskararen Lagunak (Miranda)
Dindaia
Agerraldia **babesle**

HEZKUNTZA

HEZKUNTZA-FORMAZIO JARDUNALDIAK

"Autonomia, iniziatiba eta sormenaren lanketa jaiotzetik nerabezarrera". Hizlariak: Nora Salbotx, Jaume Funes, Xabier Tapia eta Ane Ablanedor.

TAFALLA

2020 URR. 30-31

Hik Hasi
Agerraldia **sustatzaile**

HAUR AISIALDIA

Vianako artisau-azokan haurrentzako aisialdi eskaintza euskaraz.

VIANA

2021 MAR. 27

Dindaia
Agerraldia **sustatzaile**

LUDOTEKAK

Eskolaz kanpo haurrek euskaraz jolas dezaten ludoteka iraunkorrek antolatuko ditugu hainbat herritan.

ALLO

AZKOIEN

CAPARROSO

CASTEJON

ERRIBERRI

LODOSA

MENDICORRIA

ORBAIBAR

SAN MARTIN UNX

Agerraldia **antolatzaile**

Kanpainaren inguruko informazio praktikoa

- Hiru saski eskaintzen dira: beltza (betikoa), 50€ko balioa duena, kanpaina hone-tako saski klasikoa; berdea (ekologikoa), 60€ko balioa duena, produktu ekologi-koz osatua; zuria (berezia), 70€koa, gutiziaz osatua.
 - Saski beltzak produktu hauek jasotzen ditu: oliba-olio birjina estra, orburuak, pikillo piperrak, zainzuri zuriak, kardua, potxak, tomate frijitua, mahats-zukua, botila ardoa, pikillo marmelada, teilak, mertxika almibarretan, piper-mamia. Ezin ahaztu aurten, honekin batera, Korrikaren katilua jasoko dugula.
 - Saski berdeak produktu hauek jasotzen ditu: oliba-olio birjina estra, orburuak, pikillo piperrak, zainzuri zuriak, txitxirioak, barazki-menestra, pasta, arroza, botila ardoa, ardo-ozpina, udare-zukua. Guztiak ekologikoak. Ezin ahaztu aurten, honekin batera, Korrikaren katilua jasoko dugula.
 - Saski zuriak produktu hauek jasotzen ditu: oliba-olio birjina estra, orburuak, pikillo piperrak, zainzuri zuriak, kriantza, ardo zuri apartsua, patxarana, txoko-latezko zigarretak, patxaran-pastak eta arbendol-polboroiak. Ezin ahaztu aurten, honekin batera, Korrikaren katilua jasoko dugula.
- Nafarroa hegoalde eta erdialdeko 25 ekoizlek eskainiko dizkigute haien produk-tuak. Hauexek dira: Ablitasgo kooperatiba, El Alcaraván (Argedas), Almanaque (Andosilla), El Agricultor (Lerin), Aristu (Irunberri), Azanza (Abartzuza), Azpea (Irunberri), Biosasun (Discastillo), La casa del aceite (Cascante), Bardea (San Isi-dro del Pinar), La Churta (Allo), Ebrón (San Adrian), Enara (Arroitz), El Escolar (San Adrian), Gobeiaberri (Lodosa), Iturri (Arroitz), Larrinaga (Urantzia), Lezaun (Lakar), María Jesús (Ablitas), Martinelli (Berriain), Mendiko (Oibar), El Molinero (Arroitz), Monasterio de Cascante, Pedro Luis (Lodosa) eta Urrutia (Uxue).
- Aurten egin dugun elkartasun-planteamendu berezia dela eta, saski beltza eta Korrikaren katilua eskatuta, 12,50€ko ekarpena egingo zaio zonaldeko euskalgintzari (saskiaren balioaren %25) eta 5€koa AEKri; saski berdea eta Seaskaren egutegia eskatuta, 15€ko ekarpena egingo zaio zonaldeko euskalgintzari eta 5€koa Seaskari; saski zuria eta ereduaren haziak eskatuta, 17,50€ko ekarpena egingo zaio zonaldeko euskalgintzari eta 5€koa Sortzeni.
- Eskaerak eta ordainketak online egin daitezke, errigora.eus web gunean. Hala moldatzen ez denak herriz herri banatzen ari garen eskuorrien bidez egin ahal izango du eskaera. Eskaera egitean saskiak non jaso nahi dituen zehaztu behar du: 200 herri baino gehiagotan zehar dauden 700 bat guneetako batean. Ber-tan zehaztutako egun eta ordutegian pasa beharko du jasotzera eta, aurretiaz online ordaindu ez badu, jasotzerakoan egingo du ordainketa.
- Guzti hau auzolanean antolatzen da. Herriz herri eskuorriak banatzen, eskaerak jasotzen eta saskiak banatzen ari direnen lan boluntarioari esker, gutxi gorabe-hera produktuak merkatu-prezioan jaso arren, %25 bideratzen diogu euskal-gintzari.

errigora

Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritarra da Errigora. Nafarroa hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz.

Egunetik egunera gero eta zabalagoa den komunitate batek ematen dio gorputza ekimenari; ilusioz eta anbizioz ari garen herritar, nekazari, ekoizle, euskaltzale eta kontsumitzaileez osatutako sare anitz batek. Gure txikitasunetik elkarlan handi bat gauzatu nahi dugu Nafarroak Euskal Herria behar duelako eta Euskal Herriak Nafarroa behar duelako.



euskara



elikadura-burujabetza



Ager



auzolana

Euskarari bultzada eman nahi dio, dela Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari zuzeneko diru-ekarpena eginez, dela zonaldean euskarak espazio berriak irabaz ditzan lan eginez.

Nafarroa hegoaldeak propio dituen produktuak Euskal Herriko plazan kokatzea du helburu, pixkanaka elikadura-sistemen gaineko erabakiak gure esku izan daitezen pausuxikiak emanez.

Nafarroa hegoaldean eta erdialdean eragin nahi du. Erromatarrek *ager vasconum* deitu zuten lurraldea du ardatz, orain hiru hamarkada administrazioak «ez euskaldun» izendatu zuena.

Auzolana da gure lan-tresna nagusia: ehunka lagun borondatezko lana da Errigora mugiarazten duena. Hain zuzen, bertiko lan kolektiboa balioan jartzea ere badu helburu Errigorak.

Errigorak bi kanpaina nagusi egiten ditu urtero:

1- Udaberrian *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura*: eguneroko kontsumo ohituretan eragiteko jaio zen kanpaina honetan oliba-olio birjina estra eta kontserba-sortak Euskal Herri osoko etxeetara banatzen dira, bertako ekoizpena eta ekonomia sustatuz. Auzolanari esker, ekoizlearen jatorrizko prezioan jaso ditzake produktuak nork bere herrian.

2- Udazkenean *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka*: zonaldeko produktuz osatutako saskiak milaka etxetara eramaten dira, auzolanari esker, bertako euskalgintzari ekarpen-ekonomiko garrantzitsua eginez (saski bakoitzaren balioaren %25). Diru-ekarpen honetatik edaten du Agerraldiak, baita zonaldeko ikastolek, Sortzenek eta AEK-k ere.